

Aldudeko Lepheder lepoan, uso ehizan sareekin dabilta 1906. urtetik hona. Ehizatzeako molde berezia, zaila eta fina, eskopeten barranbatik urrun.

XAN AIRE

Aldude

Urriko azken igandea haize hegoarekin esnatu da. Aurtengo lehena, ipar haizeak kiskali baititu bazterrak orain arte. Egunsentiaren epeltasuna sentiturik, sekulako itxaropenarekin esnatu daitezke ehiztariak. Goizeko bederatzia jo ditu Aldudeko (Baxenabarre) elizako ezkilak. Tiroka hasi dira han, gainean, eguzkitan diren Urepeleko mendietan. Aldudeko ibarraren zola itzalaren menpe dago oraindik. Beste tiro batzuk. Orain behean dira, Bankako eskualdean. Usoak badatoz.

Aldudeko Lepheder lepoan, sareekin ari dira uso ehizatzen mende batetik hona. Ehiza molde berezia da, eskopeten barranbatik urrun. Helburua: uso tropak lepora gidatu, eta bertan dauden sare bertikala batzuekin harrapatu. Ehiztari guziak haize hegoaren zain egoten baldin badira ere, ipar haizea igurikatzen du Lepheder osoak, usoak errazago sartzen baitira lepora. Hegoarekin, sareak ikusten omen dituzte txori urdinek. Anitzetan usoak nagusitzen direlakozen hemen, zulo txikienetik baitakite ihes egiten. Pazientzia eta tresna berezi batzuk dira ehiztarien arma bakarrak. Pausoz pauso doan ehiza da, eta postu jakinak daude uso tropak «lantzeko».

PALETAK, XATARRAK. Aldudeko ibarraren sartzean dago Mizu ehiztaria, Harri Beltzeko kaskoan. Beherago, Bankako ehiztariak lehen tiroak tiratu dituzte. Usoak izango ziren. Etxolan ezkutatuta da Mizu. Eguneko lehen tropa agertu da. Badator. Paleta zuri pare bat hartu du eskuetan ehiztariak. Usoak parean ditu orain. Bat-batean etxolatik atera da, eta bi paletak zerura jaurti ditu. Berehala murgildu dira usoak. Lepoko bidea hartu dute. Garrasi ozena bota du Mizuk, lagunen abisatzeko.

Salaberri gain deitutako tontorrean daude Jacques eta Mathias, aita-semeak. Oihu bat heldu zaie Harri Beltzeko kaskotik. Hesi baten giblean gorde dira. Usoak datoz. Parean dituzte. Mathias zutitu da, eta korrika abiatu. Hiru paleta zuri bota ditu. Errekara buruz jaitsi dira bat-batean usoak, ustez eta flakoin batek erasotzen dituen. Tuta hiru aldiz jo du Jacquesek. Lepoko bideari segi doaz usoak. Ez, eskuin hartu dute.

Lepheder ttipiko kaskoan dago Leandro. Lepoaren eskuineko



Paleta zuriak jaurti, xatarrak zartarazi, eta pazientzia hartu; horrela harrapatzen dituzte usoak Lephederren. CAIZKA IROZ

aldean. Oihu bat iruditu zaio Harri Beltzeko kaskotik. Xatarra, makila bati lotutako zapi zuria dauka ondoan. Uso tropa bat ikusi du. Etxolan gorde da. Salaberri gaineako paletak tropa murgildu dute. Hiru tuta entzun ditu. Beregan datoz usoak. Etxolatik atera da Leandro, eta xatarrearekin hiruzpalau zarta egin. Oihuka hasi da. Usoak itzuli dira. Firurika batzuk eta, pareko xatarlariak lagundurik, lepoko bidea hartu dute.

Lephederreko lepoan dago Maddi. Hiru tuta entzun ditu. Goiko aldean, Pierre txistu isil bat egin du. Usoak datoz. Ttattolara joan da gordetzeraz Maddi. Sarea

erorarazten duen gidertxoaren gainean pausatu du eskua. Usoen mugimendua ez du ikusten. Bere sareari begira dago. Xatarlarien zarata entzunik, badaki ez direla lepora sartuko usoak. Baina Pierre berriz ere txistua egin du. Kasu. Txistua erritmoaren jotzen hasi da. Geroz eta fiteago, eta geroz hurbilago daude usoak. Maddik ez ditu ikusten. Txistua beti eta fiteago ari da. Oihuka hasi da Pierre. Usoak agertu dira Mad-

Ipar haizea igurikatzen du Lepheder osoak, usoak errazago sartzen baitira lepora

diren sareetara. Gidertxoa zapaldu. Burdinazko pizuaeren kaska. Sarea erori da. Baina tropa gaineatik pasatu. Uso bat baizik ez dute harrapatu.

Eguneko 30. usoa erori da. Pazientziarekin. Aurtengo 284. usoa. Jacques Ospital irri eginarazten du emaitzak. XX. mende hasieran, 2.000 usotara heltzen ziren Lephederreko usategian. «Il. Mundu Gerraren denboran, 9.000 uso egin izan ditugu. Garaian, eskopetak debe-

Il. Mundu Gerran, 9.000 uso inguru harrapatu zituzten. Garaian, eskopetak debekatuak ziren

katuak ziren, eta uso guziak guretzat ziren» oroitu da sareetako arduraduna. «Guziak ez, Alemaniako armadak konfiskatzen baitzuten hemen harrapatutako uso gehienak. Zorionez, emaitza baizik ez zuten kontrolatzen... Usategietako arduradunek emaitza erreala ezkutatzen zuten, usoak aldudarreiei ematen ahal izateko».

Baina 1980ko hamarkadan, Aldudeko ibarraren sartzean ehiztariak jarri ziren eskopetekin, Bankako aldean, Lephederreko aitzinean. Geroztik, ez dira nahi bezala aritzen sareetan. «Amesgaiztoa dirudi... Naturaliki etorri beharko luketen usoak gorarazten dituzte. Batzuetan, biziki gora direnean